

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko maiatzaren 26a



Egunkaria

Gehigarri honetan



Burgi • Uskararen Eguna ospatuko dute bihar, eta, horretarako, sorginen akelarrea egingen dute
Josu Goia • «Iruñea-Irun ardatzean gehiegi gastatu dutela diote Bera-Behobia zatia ez konpontzeko»

EUSKARA euskaroen garaietan



XIX. mendearen bukaeran foruak eta euskara defenditzen zituen pentsalari taldea sortu zen Nafarroan, Euskara Elkartea. Arturo Kanpion eta Juan Iturralde Suit ziren taldeko intelektual ezagunenak, baina baziren beste asko Euskara aldizkariaren gerizpera hurbildu zirenak. Bere garaian arrakasta handirik lortu ez bazuten ere, euren lanari esker Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu zirela diote. Euskaroen lana goraipatzearen, hitzaldi sorta egin dute egunotan Iruñean.



Burgi ●

Uskararen Eguna'00

Bihar egingen dute, 'Sasi guztien gañeti eta odei guztien azpiti' lelopean



Sorgin taldeek Burgi beteko dute bihar, Uskararen Eguna ospatzeko. ● EGUNKARIA

Erronkariko Kebenکو euskara taldeak eta bertako Euskara Zerbitzuak antolaturik, Burgin ospatuko dute larunbatean Uskararen Eguna. Baserritarrez edo sorginez jantzita joatea eskatu dute antolatzaileek.

BURGIKO KARRIKEK ERRONKARI ibarreko euskaltzaileak hartuko dituzte bihar, bertan izanen baita aurtengo Uskararen Eguna. Eta baliteke bat baino gehiago erratz gainean etortzea. Izan ere, aurtengo gai kulturala *Sorginkeria Erronkariko Ibarrean* da. Sorginkeriaren inguruko lau txoko informatibo jarriko dituzte Burgiko karriketari: Kondairak eta Ipuinak, Inkisizioa, Edabeak eta Ukenduak, eta Akelarrea.

«Uskararen Egunaren xedea euskararekiko sentsibilizazioa lantzea da, kulturaren, ohituraren eta jaiaren bidez». Horixe

azaldu du Kebenکو euskara taldeko kide Silvia Calvok. Baina agerian utzi nahi izan du ekitaldia beste batzuen osagarria dela; izan ere, Kebenکو urte osoan beste hainbat ekitaldi antolatzen ditu, Euskara Zerbitzuarekin batera: ikastaroak, mendi irteerak, umeentzako ekintzak... «Uskararen Eguna izango da, agian, gizartean eragin gehien duen ekintza, baina guretzat beste edozein ekitaldi bezain garrantzitsua da», dio Silviak. «Noski, honek antolamenduan lan eta ahalegin handiagoa eskatzen du. Halere, aurten oso pozik gaude Burgiko auzoki-

deak ematen ari diren laguntzarekin. Duela 4 urte hasi ginen Uskararen Eguna ospatzen, eta Bidankotze, Uztarroze eta Izabatik pasa ondoren, Burgiren txanda iritsi da. Gure asmoa ibarrean dauden 7 herrietan ospatzea eta berriz gurgilarekin hastea da, ahalik eta buelta gehien emateko».

Ibarrean euskarak bere lekua berreskura dezan ahaleginetan dabilta bai Kebenکو taldekoak bai Zaraitzuk eta Erronkarik elkarrekin duten Euskara Zerbitzua. Horretarako, larunbaterako, umeendako zein gazte-helduendako jarduerak antolatu dituzte. Goi-

zako hamarretan hasiko da festa: Burgiko akordeolari taldeak kalejira egingen du bazter guztiak esnatzeko. 11:00etan, Alizia Sturtze historialariak sorginkeriari buruzko hitzaldia eskainiko du Burgiko Aiza Bulguan (udaletxea). 13:00etan, Erronkariko Julian Gaiarre Abesbatzak kantatuko du elizan. Eta 15:00etan, herri bazkaria egingen dute. Barañaingo trikitixa taldeak alaiturik. Arratsaldean, haurrentzako jolasak izanen dira Kulki enpresaren bitartez. 20:30ean, dantzaldia izanen da herriko plazan Joselu Anaiekin. Gauean, 23:30ean, Akelarre kale antzerkia egingen dute Las Heras izeneko soroan. Eta bukatzeko, gaueko ordu batetik aitzina, gaupasa izanen da, Joselu Anaiekin.

→ Idoia Marcellan

Atarrabia

●
Larreko afaria
ekainaren 9an

NORK EZ OTE DU ARALAR-ko Santutegia ezagutzen? Nork ez ote du ikusi Inozentzio Aierbe Artxuetako bazter haietan? Bada, ekainaren 9an Paz de Ziganda ikastolara etorriko zaigu Larreko saria hartzera. Iruñerriko euskalgintza lanetan ari diren talde eta erakundeek hartutako erabakia izan da hori. aintzat hartzeko Uhartan sortutako apezak euskararen alde egindako lana eta gure hizkuntzari erakutsitako leialtasuna. Larreko saria duela sei urte sortu zuen Euskalerrria Irratia Elkarteak, euskararen alde nabarmendu diren norbanakoak zein taldeak saritzeko.


Bada, aurten Inozentzio Aierberi emanen zaio saria, urte luzeetan Aralarko San Migel gainetik zabaldu duen euskararekiko eta euskaldunonganako maitasuna eta leialtasuna jokabide eredugarri zai-gulako. Baditu liburu batzuk idatziak eta Iruñerriko euskaldun eta euskaltzaleen erreferentzia garrantzitsua da, apez arakildarraren jokamolde zintzoari eta prestuari zor baitaio euskaraz ari diren irrati eta telebistak entzun eta ikusi ahal izatea. Tresneria han baitago, sakristiaren ondoan.

Saria emateko Euskalerrria Irratiaren festa jendetsua ekainaren 9an izanen da. Paz de Ziganda ikastolan, 21:30ean hasita. Ekitaldirako txartelak salgai daude Iruñeko Auzolan eta Xalbador liburu dendetan, Karrikiri elkartearen eta Euskalerrria Irratian berean, 2.700 pezetan.

→ Kike Diez de Ultzurrun

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Harropuzak, puafi, asko dira mundu honetan. Eta hortik dabilta, kopeta beti tente daramatela, denik martingalarik borobilena ere hurko xaloari doi sartzeko beti prest. Behar denean — beharra daukatenean soilik —, gai izaten dira oso denon buruak losintxaz goresteke, edo, nahi izanez gero, zitalki iraintzeko. Berdin die. Harropuzta eskuzabala denez gero, bere dohainak banatzen badaki ezker-eskuin, dohainik betiere, udaberriko kukuak entzuleari sosak edo bizi-urteak ematen dizkion bezala, kukukadak aditzearren truke deus ere kobratu gabe. Halakoxeak dira harropuzak beren zereginetan, mokoazabal, zoriontsuak.

Sasitza ohi du bizitoki orojakileak, eta arantzak maite ditu biziki, azalez eta bihotzez. Guztiz gain; eroso, harrosko, minik

Sasi(dun)ak

hartzeke ikusiko ditugu orojakileok sastrakadun eremuen artetik lasai mugitzen: politikan, historian, futbolearen, dinosauroei buruzko eztabaidetan...

Espero bezala, orojakileok sasiak banatzen ematen dute denbora gehien, horixe baita, eta ez besterik, benetan atsegin duten arazoa.

Maiz aditzen ditut irratiari. Urliari, kasu, abertzale izatearen akusaziopean kendu berri diote demokrata izatearen ospea; har beza Urliak, beraz —entzuleen iseka artean—, dagokion sasi-demokrataren ziria, orojakileek ozen emana. Sandia dugu bigarren, herritar eta kazetari gaiztoa; eta, orojakileen taktika eta estrategiak tarteko, tiroz garbitu dute etxeko atari hurbilean. Sasidun bat gutxiago gutartean. Darraigun, segituan, Be-

rendiarekin. Hori apartekoa baita, zeinak —Unamunok esandakoaren kontra— ez baitio oraindik uko egin euskaraz mintzatzeari, eta egoskor baitarrai hizketan bere gogo eta desgogoarekin. Hari buruz, aitzitik, zera dio Don Aureliok —ilustratu harropuz horrek— probintziako kazeta dotorean; alegia, euskalduna eskas dela, ez dela gauza bere mintzaeraz pentsatzeko. Garunaren erabilpenari gagozkiolarik, izan bedi Berendiarentzat sasi-pentsalari izatearen marka, pentsatzeko ere urri baita euskararen hitzuna —idiota lerdoa— katedradunaren ustez.

Funtsean, harropuzak eta orojakileak, udaberriko kukuaren antzera, txantxangorritz beterik baitakusate basoa eta mundua.

Elizondo • Xabier Lertxundiri omenaldia

Igandean oroigarria jarriko zaio Auza mendiko kaskoan

Xabier Lertxundiren hutsunea ez da erraz beteko Baztanen. Sinesten zituen gauzengatik etengabe lan egiten zuen. Mendietan aurkitzen zuen askatasuna, batez ere hainbeste maite zuen Auzako tontorrean.



Xabier Lertxundiren omenezko harria paratuko dute igandean Auza mendiko tontorrean. Irudian, Lertxundi ageri da (ezkerrean, belaunikaturik), Auzan bertan. • EGUNKARIA

MARTXOAREN HASIERAN Xabier Lertxundi iruritarra, beste lagun batzuekin Aragoiko Pirinioetan zebilela, irristatu eta mendian behera amildu zen. Lagunek bizirik aurkitu zuten, baina laguntza eskatu zutenean lainoa sartu zen eta helikopteroak ezin izan zuten lurreratu. Hori zela eta, sei ordutan mendian barrena eraman behar izan zuten Xabier. Egoera larrian iritsi zen Zaragozako ospitalera, eta, azkenik, martxoaren 15ean bizia galdu zuen.

Mutil jatorra zen, eta lanerako beti prest. Baztango Mendigoizaleak taldeko kide izanik, bailarako txoko guztiak ezagutzen zituen, baina mendi guztien artean Auzak zer edo zer berezia zeukan harentzat. Isa-

ak Rekalde EHko kide eta Xabierren lagunak aipatu duenez, "Auza zen haren erreferentzia, askotan gaua bertan pasatu zuela esaten zigun". Xorroxin Irratian parte hartu zuen askotan, *Karakola Segi Hola* saioan, mendigoizaleen ibilbideez solasteko. Bestalde, Baztango EHko kide ere bazen Xabier Lertxundi, eta taldearentzat etengabe lan egiten zuen.

Lertxundik Baztango okindegi batean lan egiten zuen gauetz. Egunez, berriz, maite zituen gauza eta ideiak gogoz defendatzen zituen. Bera zen

Baztandarren Biltzarra elkarreko materialaren arduraduna eta Baztango edozein herritan mahaia, platerak edo beste edozer behar zutenean bera arduratzen zen dena banatzeaz.

Horrengatik guztiagatik, Baztango Mendigoizaleak, Baztandarren Biltzarra elkarreko eta Baztango Euskal Herriarrok taldeak bildu dira Xabier Lertxundiri omenaldia eskaintzeko, eta elkarte horientzat egindako lana nolabait ere eskertzeko. Beraz, igandean, goizeko zortzietan Izpegitik Auzako kaskorako ibilbidea egin eta han oroigarri

bat jarriko dute. Oroigarria egiteko, Auza menditik harri bat hartu eta hargin batek landu du. "Belarra berde, harrie gorri, elurre zuri", idatzi dute epitafio moduan, natura ikurrinaren koloreekin parekatu nahirik. Ekitaldiekin jarraituz, arratsaldeko ordu bietan Merkaturko Plazan zuhaitz landaketa egingo da. Toki berezia da hori, bertan egiten baita urtero Baztandarren Biltzarreko bazkaria. Ondoren, omenaldiaren egunarekin bukatzeko, bazkaria egingen dute.

→ Raket Goñi



herri aldizkariak
Miren Iriarte

Hasteko, antimilitarismoa

LOTSAGABE aldizkariak argia ikusi berri du Bortzirietan. Gazteentzako aldizkaria da, gazteek egin. Lehenengo zenbakian, beste hainbat gairen artean, intsumisioarena jorratu dute aldizkariako kideek: «Intsumisioaren mugimenduak hamaika urte bete dituenean, kasik hiltzeko ordua ailegatu zaio. Ejertzito profesionalaren osaketarekin, intsumisio mugimendua alde batera geldituko da, derrigorrezko soldaduska desagertzearekin batera. Hala ere, hemendik aitzinera bertze borroka bat hasiko da herri

mugimenduarentzat: desmilitarizazioa».

«Ejertzito profesionala ez da kasualitatez, egun batetik bertara sortutako ideia izan. Objazio eragozleen eta intsumisioen borroka erabakigarriak izan dira Espainiako Gobernuak neurri hori hartzeko tenorean. Euskal Herriaren mugimendu ikaragarria izan da azken 11 urte hauetan ejertzittoa desgogin zedin eta derrigorrezko soldaduskara jendea joan behar ez izateko».

«Ejertzito profesionala osatuko da hemendik aitzinera, eta beraz, joan

nahi duenarentzat baino ez da izanen. Hauek soldata bat jasoko dute trukean. Baina ejertzito profesional batek bertzelako arazo anitz planteatzen ditu. Gastu militarra ikaragarria da. Intsumisio mugimendua desagertuko dela dirudien arren, lan anitz gelditzen da egiteko. Helburu bakarra ez da jendea bortxazko egoera hori kentzea, Helburu handiagoak ditu mugimendu antimilitaristak: ejertzitoekin bukatzea. Interes ilun anitz, eta onurarik eza gordetzen dira ejertzitoen gibelean».



urdai
aren
mintzoa

Xabier-Larraburu

Nescafé Aberria

Arratsalde partean Jon Juaristiri Liburutegi Nazionalaren zuzendari kargua eman diotela eta asuntu honek eragiten didan amorru eta kiratsaren nondik norakoak azaltzen saiatzen naiz neska-lagunari. Eta, horrela, kargu banatzaileek darabiltzaten argudioak zenbaitu eta astintzen ditut salako ilunabarreko argi hori honen pean, Xaxa nire katuaren begirada harrituz lagundurik. «Lehenik eta behin», esaten diot, (pixka bat ahotsa goratuz, aitor dezagun gizonki), «nola esan dezakete, bada, bere intelektual jarrera kritikoarengatik hautatu dutela?». «Esaidazu, maitea», altxatu egiten naiz Zizeron baten antzera, eskuarekin gora egiten dut Katon zahar bat bezala, ahotsa sakona ateratzen zait Seneka haserretu baten modura: «Non ostias ikusi da Estatuak, Sistemak, Boteareak, Gobernuak edo Dena Delakoak intelektual kritikoen jarrerak saritzen dituela? Ez al da beti justu kontrakoa gertatu ala?». Nire maiteak, liburu bat irakurtzen ari baldin bada ere, buruarekin baietz egiten duela ematen du, eta horrek indar berriak ematen dizkit hurrengo hau botatzeko: «Eta, gainera, gainera!, ateraldi kontraesankor horren haritik bere handitasunari buruz entsegu nazkagarri bat egiten dute! Begi-bistako kontraesankorkeriak beraiei bost! Demagun, esate baterako, tipo batek «Mundu Mundialeko gizonik apalena naiz ni» esaten duela. Begi-bistakoa da, arrazoizkoa!, tipo hori ez dela ez apala ez umila ere. Juaristiren saritu beharreko kritikotasunarekin horrelako zer edo zer gertatzen da. Errotik kontraesankorrek dira biak». Xaxa-k bere gorputza kiribildu du eta lotara doa. Maitiak «ez aztoratu» esaten dit. «Gauza sinpleagoa da, kontua da Nescafé soldata bat eman diotela, bizitza guztirako soldata bat eman diotela, eta kitto. Gainontzekoa propaganda hutsa da». Egia. Zertarako arrazoitzen saiatu? Nescafé aberriaren kontu txikiak dira, enpresa erraldoi baten lehiaketa mugatuak, monopolioaren hierarkian gora egiteko eskaintza hautatuak, ez dago besterik. Nescafé kupoiekin ibiltzen ez garenok... zertarako aztoratu? •

Euskaroen lana gorripatzeko



Nafarrek berezkoa zutena, euskara eta foruak, defendatu zuten euskarok, Nafarroaren gainbehera gelditzeko konponbide gisa. ● JOXE LACALLE

irritziak

«'Príncipe de Viana' aldizkarian euskaroen oroitzapena oso present zegoen»



► Iñaki Iriarte, Soziologian doktorea

Euskaroen ondarea aztertu zuen Iriartek bere hitzaldian. *Tramas de identidad, literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)* bere liburu-ikerketak oinarri hartuta.

«Euskaroen erabateko porrotaz hitz egin ohi da», adierazi zuen Iriartek. «Egia da ez zutela mugimendu literario garrantzitsurik sortu, ezta alderdi politiko bat egituratu ere; ez zuten foruak berriro ezartzerik lortu, ezta euskararen galera geldiarazi ere. Baina gehiegixko da erabateko porrotaz hitz egitea. Izan ere, euren hitz eta kontaketak etsaien ahotan jartzea lortu zuten».

Iriartek, euskaroen ondarea nabarmentzeko, paralelismoa egin zuen Euskara aldizkariko (1878-1883) egileen eta Príncipe de Viana aldizkariko euskarazko gehigarriko (1966-1985) kolaboratzaileen artean. «Gehigarri horretan euskaroen oroitzapena oso present zegoen», komentatu zuen Iriartek.

Iriarteren hitzetan, «euskararen gaitze dramatikoaren kontzientzia» zuten euskarok zein gehigarriko kolaboratzaileek. «Larritasuna eta ezintasuna sentitzen zuten bi taldeek. Beste gauza batzuen artean, euskaroen zein gehigarriko kolaboratzaileen iritzi, nafarren arduragabetasunak ekarri zuen euskararen galera. Euskarak prestijio falta zuela uste zuten. Eta prestijio hori erdiesteko euskara goraiatu behar zen, agintariak aintzat hartzea lortu eta euskaldunak alfabetatu. Gainera, diskurtsoaren paralelismotik haratago, gehigarrikoen zenbait ekimenek euskaroenak dakartzate gogora». Iriartek erran zuenez. Baina gehigarrikoek ez zuten soilik euskaroen bidea berriz ibili. «Aitzinago joan ziren, eta euren lana euskaroen eta egungo ekimenen artean dagoela erran daiteke».

Roldan Jimeno

NAFAR ATENEOKO EUSKARA BATZORDEKO KIDEA



«Nafarroan ez dago intelektual talderik euskararen kontrako erasoei erantzuteko»

Bizpahiru urtetan inork ez du izan Nafar Ateneoko Euskara Sailaren arduraria. Roldan Jimenok hartu du berriki arduraria, eta berak prestatu du jardunaldien egitaraua.

■ Zer dela-eta antolatu duzue hitzaldi sorta hau?

Batetik, parte hartu dutenen lanak ezagutzeko. Hitzaldiak eman dituzten askoren doktoretza tesiak ezagutzeko aukera izan dugu. Bestetik, hitzaldietako pertsonak oso ikuspegi ezberdinekoak dira, eta horiek guztiak biluztea interesgarria izan da. Gainera, gehienek ez dute euskara aztertu. Adibidez, Carlos Matak asko idatzi du Navarros Villosladaren inguruan, baina ez du inoiz jorratu Navarra Villosladaren jarrera euskararekiko. Hemen egin du. Eta, azkenik, euskaroen garrantzia azpimarratzeko antolatu ditugu hitzaldiok. Gaur egun bizi dugun egoera soziopolitiko-linguistikoa garrantzitsua da ezagutzeko euskarok proposatzen zutena. Euskarok bi gauza defenditzen zituzten batez ere: foruak eta euskara. Euskarok garai intelektual nagusiak ziren, eta lortu izan zuten maila akademikoan bideratzea Nafarroaren nortasunari buruzko oso eztabaida garrantzitsua. non euskara nafartasun horren funtsezko osagaia baitzen. Hori esaten zuten orain dela ehun urte, euskara desagertzeaz zegoelarik. Eta euskararentzako zimentu sendoa jarri zuten. Izan ere, euskara suspertzeko ekimenak abiatu zituzten, eta horren ondorioz sortu ziren gero Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia.

■ Euskarok euskararen apologistak ziren eta erdaraz egiten zuten apologia hori. Antolatu dituzuen jardunaldiak apologia modura uler daitezke. Ez al da garaia apologia euskaraz egiteko?

Hainbat arrazoi daude hitzaldiak erdaraz egiteko. Batetik, gero argitaratuko den liburuari nolabaiteko koherentzia emateko hizkuntza batean behar zituzten hitzaldi guztiak. Bestetik, hizlarien erdiak erdaldunak dira, eta niri ez zait gustatzen egun batean euskaraz eta bestean erdaraz egitea. azkenean jende euskalduna etortzen zaizulako bakarrik. Eta, azkenik, uste dut orain pil-pilean dagoen gai baten inguruko gogoeta egiteko parada eskaintzen digula jakitea euskarok zer zioten. Distantzia guztiak salbu, egungo egoerarekiko antzekotasun asko suma daitezke. Planteatu zituzten gauzetatik ikasi behar dugu. Eta ikasi behar dutenak ez dira hainbeste jadanik euskaldunak direnak, euskara barneratu gabe duten erdaldunak baizik.

■ Behar ote du euskarak Nafarroan euskaroen antzeko intelektual talde bat aitzina egiteko?

Bai, dudarik gabe. Euskarari Nafarroan egiten dizkioten erasoak oso pobreak dira intelektuali. Ez dute inolako funtsik. Soziolinguistika edo hizkuntzen historian jakitun den edonork ikus dezake pobretasun hori. Baina euskara murriztearen aldeko diskurtso horrek ez du oraindik izan erantzun intelektuali. Nafarroan ez dugu intelektual talde pisudunik horri aurre egiteko. Batzuk badaude, baina ez dira nahikoak diskurtso hori isilarazteko. Akaso, intelektual erdaldunak ere ez dago Nafarroan eta horregatik da horren pobrea euskararen aurkako diskurtsoa.

Foruak eta euskara defenditu zuten euskaroen lana aztertu dute Iruñean egiajardunaldietan

Arturo Kanpion, Juan Iturralde Suit, Hilario Oloriz, Estanislao Aranzadi edo Nicasio Landa eta beste pentsalari batzuek osatzen du euskaroen taldea. Azken karlistaldia bukatzeaz batera, euskara eta foruen aldeko lan intelektualari ekin zioten. Lan horren garrantzia gutietsi dute anitzetan. Azken lau egunetan euskararen lana goraiatzeko hitzaldi sorta egin dute Iruñean.

EUSKAL HERRIAN BENETAKO BERPIZKUNDEA, Eusko Bepizkundera deiturikoa, azken karlistaldia eta gero izan zen. XIX mende bukaeran. Nafarroan euskarok hartu zuten arduraria. 1877ko apirilean Arturo Kanpion idazleak zenbait artikuluz argitaratu zituen *Euskara* izenburupean. Juan Iturralde Suit bere lagunari zuzendu zizkion, euskara bultzatuko zuten elkarte bat sortzeko intenzioarekin. Iturraldek erronkari aurre egin zion.

1877ko urriaren 23an, bere urtebetetzearekin, Iturraldek lagun taldea bildu zuen Iruñeko bere etxean, eta orduantxe sortu zen Nafarroako Euskara Elkarte. Nafarroaren gainbehera zeterrela ikusten zuten, eta horren isla euskararen galera dramatiko zen. Hori eragozteko, euskara eta foruen apologia egiteari ekin zioten. Izan ere, euskara nafartasunaren osagai garrantzitsua zela uste zuten. *Euskara* izeneko aldizkaria argitaratu zuten (1878-1883); Lore Jokoak antolatu zituzten Elizondon (1879) eta Beran (1880); erakunde laguntza bilatu zuten; Iruñeko Udalak euskarazko literatura lehiaketak antolatzea erdietsi zuten (1882-1886); eta euskara katedra sortzeko aritu ziren jo eta ke.

Euskaroen «porrota»

Euskararen 1897ko maiatzean desegin zuten urteetan elkarrearen ekimenak ziren. Elkarte aho batez desegin bazkideek, uste zutelako Nafarro Diputazioak euskara azkartzeko asendoa zuela. Izan ere, euskara kateortzeko lehiaketarako epai-mahaikie izendatu zituen Diputazioak Kanpion, Azkue eta Damaso Legaz. Baina, lehen, lanpostua hutsik utzi zuten, kideek maila ematen ez zutelako. Zela ulertzea Kanpion eta Legaz euskarokabidea. Euren zintotasunak baina azal dezake zergatik utzi

Proiektu euskararen bukaera triste zela erran ohi da. Baina euskararen hizkuntzaren lehen atzailerak izan zirela diote teneko azterketek

ren hizkuntzaren lehen salbatzaileak izan zirela diote. Elkarte desegin arren, bere kideek lan egiten jarraitu zuten, eta horren fruitu izan ziren Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren sorrerak. Jardunaldietako antolatzaile Roldan Jimenok erran duenez, «egun euskararen inguruan dugun guziaz ez litzateke ulertuko jende honen lanari esker ez balitz. Eta, gainera, garrantzitsua da mugimendu hau Nafarroan sortu zela. Hori harrotzeko modukoa da».

Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak antolatutako hitzaldietan —lau egunetan egin dira— maila handiko adituek hitz egin dute. Josu Chueca, Ignacio Panizo, Carlos Mata, Jose Javier Lopez Anton, Jose Maria Satrustegi eta Xabier Erizek, besteak beste, euskaroen eta beren garaiaren alderdi oso ezberdinak aztertu dituzte. Aditu hauen guzien txostenak Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako departamentuak argitaratuko ditu. Hitzaldietara joaterik ezin izan duenak liburu horren argitaratzearen zain egon beharko du euskaroen garrantzia hobeki ulertzeko.

→ Asier Azpilikueta

«Eraikin modernoena eta nafarrena eraikitzeko orubean euskara euskaroen dako»



► Jose Luis Nieva, Historian doktorea

Euskaroen eta hizkuntzaren artean izan zen harremana aztertu zuen Jose Luis Nievak bere hitzaldian. Nievari *La idea euskara de Navarra, 1864-1902* izenburuko liburua argitaratu berri diote. Bere tesiaren isla den liburu mardul horretan euskaroen historia kontatzen du, hasieratik bukaera arte. Nievaren aburuz, euskaroen ekimen guzien atzean euskararekiko maitasuna zegoen. «Maitasun hori bizitzeko sortu zen, erresistitzeko», erran zuen Nievak. «Eta izaten jarraitzeko gogo horrek etorkizunari begiratu eta ez zion progresoa-

ri muzin egiten. Eraikin modernoena eta nafarrena eraikitzeko orubea zen euskara euskaroen dako. Nobetza zugarrien errebinkazioaren mugimenduko aitzindariak izan ziren. Eta hori alde zuzeneko kontua izan zen. Lanaren fruituak bilatu eta baloratu egin zituzten». Porrot edo gaitzearen gainetik, euskaroen aitzindari ia zera azpimarratu nahi izan zuen Nievak. «Bidea hasi zen urratsak egin zituzten, zailenak. Euskarok joan egin ziren, baina gauzek ez zuten berdin jarraitu».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

NUPeko liburutegiaren altxorrez

Berriki, NUPen liburutegiak fondo zaharrea dituen altxorak izan ditugu mintzagai han-hemenka, tartean euskaraz idatzirik daudenak ere bai. Aunitz dira euskarazko liburu zaharren zaleon gozagarrirako Unibertsitate Publikoak eskura jarri dizkigunak; alabaina, eta denetan bezala, liburu hauen artean badira berebiziko interesa sorrarazten dutenak.



Ez da zalantzarik, edo bederik ere inor gutxi du zalantzan ezarriko Larramendiren hiztegia eta apologiak guztiz garrantzizkoak direla euskal literaturaren historian. Andoaingo josulaguna izan baitzen Hegoaldean XVIII. mendean geroztik abiatu zen euskaraz eginiko literaturaren eragile eta bultzatzaile nagusia. Dena delarik ere, 1745eko hiztegi hirukoitzaren aleak ez dira zailak topatzen, jatorrizkoak ere, edizio faksimil berri eta garestia merkatuan oraino dagoelarik. Apologiak, edota gramatika ere, neurri apalago batean izanagatik, ez dira oso zailak aurkitzeko, direla Telletxea Idigorasen edizio zainduak, direla Hordagokoez edo LGEVkoek eginikoak. Larramendiren ordenakide eta jarraitzaile zuzenak izan ziren Mendibururen eta Kardaberaren lanak ere ez dira bereziki eskuragaritzak. Liburu azoka askotan orobat liburu-denda ugariaren apalategirik zokoratuenetan badautza oraino salgai Patxi Altuna euskaltzainak atondu Mendibururen idazlan argitaragabeak. Kardaberaren lanei bagagozkie, berriz, LGEVkoek bere lan guztien edizio faksimila atera zuten 1973an, eta *Euskararen berri onak* behin baino gehiagotan eman da argitara, tartean Dodgsonen 1898an edota Antonio Zavalak Auspoa bilduman ateratakoak. Pascual Iturrigarren alegiak ere aisaki eskuragarri dira, bai eta merke, geroz eta geldoago ateratzen ari den EEEren Klasikoak saila berdexkan. Piarres de la Vieuxville Baionako apezpikuaren doktrina ere arront eskuragarri da Euzkaltzaindiak duen egile klasikoaren sailean, Villasantek apailatua 1985ean atera zena. Eta, azkenik, Mogelen lanak aipa daitezke. Bizkaiera klasikoaren sortzaileetakoa izan zen Eibarko Juan Antonio Mogel Urkiza Markinako apezparen libururik ezagunena bere *Peru Abarka* dugu duda izpi-

rik gabe; alabaina beste lan batzuen egilea izan zen, tartean gure egunotan argitaratu diren dotrina pare bat. Villasanteren eskutik bata 1987an eta Adolfo Arejitaren eskutik bestea 1994an —baita Bonaparteren ondareko bilduman ere—; NUPen dagoen Mogelen lana, berriz, honek gipuzkeraz tajutu zuen aitortzari buruzko tratadu luzanga eta bikoitza da, *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac* izenburukoa. Iruñeko Ezkerroren alargunaren etxean 1800ean agertua, eta edizio berriarik oraindano izan ez duena. Eskuratzeko zailagoak diren testuak, ordea, eta horregatik aldi berean ere ezezagunago jarraitzen dutenak, Xuriorena eta Voltoirerena dirateke. Mitxel Xurio Azkaineko Martzeenian jaio, Donibane-Lohizuneko erretorea izan, eta zeregin hartan 1718an zendu zen, Villasantek dioenaren arabera, santu ospe itzelean —alabaina, egungo aita santu honek kanonizatzen ez badu, nekez izanen dugu santu lapurtar berririk—. Xuriok Kempisen *Jesuhris-toren imitacionea* itzulikatu zuen, hil ostean, 1710ean, Bordelen atera ziotena. Ez da, aldiz, Kempis sonatuaren lehenbiziko euskal aldaera, bada, bai Pouvreaux lehenbizi bai Aranbillagak geroago, biek itzuli baitzuten. Pouvreauxen itzulketa ez zen bere garaian argitaratu, eta Parisko liburutegi nazionalen gorderik egon da Hordago-Lur argitaletzekoek estreinako argitalpen berantiarra agertarazi zuten arte, Sastrategiren hitzaurre batekin eta guzti, faksimilen bilduma hartan ohikoa ez zena. Hortaz, euskarazko *Kenpisa* karrikartatu zuen lehenengo itzultzailea Ziburuko erretora zen Aranbillaga aheztarra izan zen, Baio-

nan 1684an. Halaz guztiz, literatura klasikoaren ikerle gehienak bat datoz Xurioren liburuen dohainak gorapatzan.

Voltoireren liburua aipatu altxorretan gorenetakoa genuke; alabaina, komunzki uste den baino askoz ere ezagunagoa izan da, eta edizio berri ugari egin dira liburuxka hirukoitz honen kontura. Jatorrizko liburuen izenburua *L'interprète ou traduction du François, espagnol et basque* dugu, eta Voltaire izenekoak eman zuen argitara Lyongo Royver baitan, XVII. mendean lehenbiziko laurdenean. Vinsonek bigarren ediziotzat aurkeztu ziganak euskaraz tajaturiko izenburua badu, *Tresora hirour languaie-taqua, francesa, espagnola eta hasquara, obra ona eta neceffaria nore defiracen baytou eran den languie horençat*, eta Baionan agertu zen Franztes Bourdot liburuegilearen etxean 1642an. Orduz geroz, XVII eta XVIII. mendeetan behin



eta berriro eman zen argitara, beste liburu hoberen ezean bere erabilgarritasunaren seinale. Pasa den mendeko 1845ean, ordea, eta Voltoireren lana zaharkiturik erabat geratzearekin ber, asmo ikeritzaile zein bibliofiloekin eginiko lehenbiziko edizioa plazaratu zen Parisen Bruneten eskutik, *Anciens proverbes basques et gascons, recueillis par Voltaire*. Mende honetan, ordea, hiru izan dira egin diren lan honen edizioak, Xabier Kintanak 1971ko ASJU aldizkarian, Joseba Andoni Lakarrak 1995-1996 urteetako ber aldizkarian, eta azken, aurtan berean Xarrittonek Baionan atera dutena.

Patziku Perurena



Jainkoaren mandataria

HALA DIO R. M. AZKUEK: *Auxe da ene ustez, euskarazko izenik geien dituen izakia. Bonaparte euskalari andiak laurogei bildu zituen eta, Londresko Philological Societyra igorri. Hortatik mariposak baino izen gehiago esanera gurea.*

Ez da harritzeko. Iruñeko Planetarioan 3.000 ezpezetik goiti badaude, nahi dituenak ikusi. Bada zerbait! Joan den berrogeitamar urtean Fco. Gonzalez jaunak egin duen bilteze eta ikertze lanari zor omen zaio erakusketa.

Pirinio alde hau omen da Europako lekurik aberatsenetakoa mariposatan. Nafarroa hutsean harrapatuak 147 espezie omen dauzka nere tokaio murtziarrak, eta haietako batzuk hagitz ale bakanak. *Strymonidia pruni* izenekoak, esate bateko, hemen eta Gipuzkoan bestetan ez omen da. Nola deitzen ote zioten euskaraz Urzainki, Gipuzkoa kostalde nappa zen garaian?

Zinez sorkari xarmagarria gure mariposa; mundua mundu denetik hunkitu izan baitu jendakion irudimena, bere ibilera pinpirin, soineko apain eta pausaera xaloagatik. Pausaera bai! hain zuzen, horrexetatik baitatorkio izen sorginetako bat: *pinpilinpausa*. Baita mariposa izena bera ere: *María pó-sate* esaneratik.

Mundu zabaleko sinbologian, batik bat *arima* irudikatu du mariposak. Gautximeletak edo egunezko beltzak, orohar, arima erratua, deabrua, infernukoa, zori gaiztoa, heriotza adierazi izan du. Egunezkoak eta kolore argikoak (zurikoak endemas): zori ona, arima ongilea, aingeru goardakoa, jainkkoa, ama birjina, bizipozaren miraria...

Beste antzeko askoren artean, hara zer sineste jaso zuen Gipuzkoa aldean Azkuek: *Tximeleta zuria zerukoa da, beltza inpernukoa, gorria purgatoriokoa. Tximeleta zuriak Ama Birjinaren berriak ekarten ditu eta*

ez da il bear. Tximeleta beltzak il egiten ditue. Baztanaldean, berriz: "Yinkoilloak aurpegian yoten duelarik, Yinkoak digula berri on' erraten da".

Grezia eta Erroma zaharrek sineskeran: hildakoen gorputik ateratako arima zen mariposa. Badirudi sineskera zahar hau, holako beste asko bezala, Asia aldetik sartu zela mendebaldera, han ere defuntuak berpiztu baitzitezkeen gautximeleta itxuran. Afrika aldean ere, zibotetik ateratzen den mariposak, bere gorputzetik askatzen den arima adierazten du.

Gero, bere burua argi engainagarriren baten inguruan jiraka zorabiatuak galtzen duen sorkari ilaun eta pasakor izate horretan ere, gizonaren munduko joera galgarria, hagitz ongi irudikatzen digu mariposak. Horregatik guziagatik edo, euskal izenak ere arrunt arinak, pinpirinak, eta batez ere arimadunak ditu mariposak.

Euskaraz izen ugari izanaren, sorrerari begiratuz, laubost sailetan bildu litezkeela dirudi; batzuk, bistan denez, aldi aldi *numen* batetik sortuak: *sorginbitxi, marisorgin, sorginoilo, jainkoilo, axandilo, inguma*; interesgarria litzateke *oilo* atzizki hori nondik datorren xuxen jakitea; *Inguma* berriz, *mamua* eta abarrek, mahuma *mahoma* delakotik ote datorren leitua nago norbaiti.

Beste asko: *mitxeleta, tximeleta, txipilota, pitxilota* eta gisako aldaerak, badirudi *mikel* izen santuaren hipokoristikoren batetik *Mitxelot, mitxelet* sortuak ditugula. Beste izen sail haundia, berriz, sorkari honen tankerak berak iradoki dizkigun onomatopeiak: *farfai-la, eulifarfaila, pinpirina, txirulirua, txipiritona, altxabili, atxita-muxita*...

Eta nik zergatik erabili dudan mariposa? Ba, Goizuetan beti halaxe aditu izan dudalokotz, *jainkon mandataria* ez bada. Aukeraren maukera, atzanean okerra, horra!

Ziria

• Motxorrosolo •

Pribatua

BIDE HORI HARTU DU SADAR ONDOKOAK. SIGLEK EZ DUTE aldaketarik izango. Hango gezurretik horko gezurrera dabilenak kontrakoa esan arren, irakaskuntza publikoaren ikurra izan behar zuenak pribatizatzeari ekin dio. Zeroako zuzendari ohiarena lekuko.

Josu Goia

☉ Berako alkatea

«Borondate politikoa falta da Bera-Behobia konpontzeko»

Bortzrietako alkateek urte anitz daramatzate eskualde honetako errepiderako irtenbide baten bila. N-121A errepidetik gero eta ibilgailu gehiago pasatzen da, batik bat Belateko eta Larrakaizko tunelak ireki zirenetik.

Josu Goia Nafarroako parlamentario izan zen Berako alkatea izan aitzinetik, orain 20 urte inguru. Ordudanik dabil konponbidea eskatzen Beratik Behobiara ere errepide zatirako. Borondate politikoa falta nabaria dela adierazi digu.

■ **Zergatik igaro dira 20 urte errepide zati hau konpontzeko lehen eskaria egin zenetik?**

Biztanle guti garelako eta politikoa gehienak Iruñetik hegoaldera jaiotakoak direlako. Eskuälde hau ahantzia dute. Garai hartan errepide anitz egin ziren, Zangoza aldera, Lizarra aldera... Orain errepide horiek autobia egitea pentsatzen ari dira, eta gurea deus egin gabe dago oraindik. Iruñea-Irun ardatzean trafikoa gehien duen zatia Bera eta Behobia artekoa da, eta Belate eta Larrakaizko tunelen irekitzearekin oraindik gehiago handitu da arazoa.

■ **Auziak eduki politikoa duela dirudi: Pirinioetako autobideari lehentasuna eman diote, Nafarroa eta EAEn arteko harremanen etetea...**

Eurek hori ez dute aipatu ere egiten, baina nik uste dut hala dela. Ezin dugu ulertu hiru urte pasatu ondotik bilerarik ez egitea, erabat ahanzte gutaz... Ez dago borondate politikorik arazoa konpontzeko.

■ **Parlamentura jo behar izan duzue Palacios kontseilariak bilera bat jar dezan. Nolako harrera izan zenuten?**

Bortzrietako alkateek bile-

ra bat eskatu genion Palaciosi. Aferak bi urte zeramatzen geldirik, eta urte baten ondotik erantzunik izan ez genuenez, Parlamentura joan ginen. Alderdiak harrirituta agertu ziren, baita UPN ere.

■ **Eta zein ondorio ateratzen duzue Palaciosekin bildu ostean?**

Bere bertsioa eman eta ez zigun proposamenak eta kezak azaltzeko denborarik ere eman. Berea bota eta alde egin zuen. Palaciosek erantzun zigun ardatz honetan diru gehiegi gastatzen ari direla. Nafarroa guztiko planak betetzen ari dira, gurea izan ezik.

■ **Egin al duzue Bortzrietako alkateek proposamenik errepidearentzako?**

Orain arte hiru alternatiba proposatu dira. Bilera horretan azaldu ziguten gauza bakarra izan zen beste bide bat proposatu dutela, laugarrena, eta ados daudela Gipuzkoako zein Nafarroako teknikariak. Pixka bat merkeagoa da laugarren aukera, eta orain Larrakaitzen ireki berri dutenaren ezaugarri bertsuak ditu, bidearen %70 inguru hiru bidekoa, eta gainerako zatietan bikoia. Ibilbidea eginda dago. Proiektua egiteko agintzea baino ez da falta.



● EDURNE KOCH

■ **Endarlatsatik Behobiara ere zatia Gipuzkoaz arren, Nafarroaren jabeagoa da. Lanak noren esku egonen diren argitu al da?**

Gipuzkoari 1.400 milioi kostako litzaioke errepide zati hori egitea. Errepide osoaren kostua hasieran 4.800

milioioa zen, baina azken proposamenak 4.600 milioira jaisten du kopurua, eta Gipuzkoak 1.400 ordaintzen baditu, Nafarroari oraindik gutiago kostako zaio. Nafarroako Gobernuak, hala ere, erran digu Gipuzkoako Aldundiarekin eta diputatu nagusiarekin guk izateko harremana zuzenean, guk ordezkatzeko ditugun alderdietakoak direlako. Orain bilera eginen dugu, eta ea ados jartzen garen.

■ **2002rako bukatua behar zuen errepidea 2003an hasiko omen dira egiten. Bitartean, gainerako errepide zatiak hobetzen ari-**

«Nafarroako Gobernuak erran digu Gipuzkoako Aldundiarekin eta diputatu nagusiarekin guk izateko harremana zuzenean, guk ordezkatzeko ditugun alderdietakoak direlako»

soslaia

☉
Joan den uztailaz geroztik da Berako alkate Josu Goia Etxeberria, EHk Beran hauteskundeak irabazi ostean. Bortzrietako alkateekin elkarlanean dihardu Behobia bitarteko errepide zati hobetzeko, hori baita N121-A errepidean konpontzeko falta den zati bakarra.

☉
Orain 20 urte inguru parlamentario zela egin zuten lehendabiziko eskaria errepide konpontzeko. Parlamentario izateari utzi, eta 12 urtez izan zen zinegotzi Beran, eta orduan ere behin baino gehiagotan eskatu zuten errepidea konpontzeko, baina alferrik.

☉
Zeregin frankotan ibilitakoa da lehendik: musikan, eskulturan, herri mugimenduetan... Alkatetzak ez dio kasik denborarik uzten horietan aritzeko, familiak duen dendako lanetan eta Udalekoetan pasatzen baitu ia egun osoa.

■ **dira, eta gero eta auto eta kamioi gehiago pasatzen da Bortzrietatik. Ez al da arazoa gehiago larriagotuko oraindik?**

Hori da gure kezkarik handiena. Enbutu bat da Beratik Behobiara ere errepidea, eta botila konpondu da, baina hemen pilaketa handiagoak daude. Orain 20 urte 6.000 ibilgailu pasatzen omen ziren errepide hauetatik egunean. Azken datuen arabera, 7.000 pasatxo, eta hori gezurra da, orain dela 20 urte baino anitzez ere auto eta kamioi gehiago ibiltzen delako hemen.

→ Jon Abril



Nafar Kronika

Pello Goñi

Hamazazpi galdera Cerverari

Esaidazu, Santiago, zoriontsua al da lege proiektuaren mugaz bestaldeko osasun kontseilaria? Kausitzen al duzu maitasunik sikiera farmazialarien arteko %25 edo %20ren baitan? Ala beti bezala mutu al zaude legebiltzarreko labirintoaren azkeneko salan? Erresuma zaharreko karriketan ba al dago zure argazkirik gabeko botikarik? Ba al du aurrentipenik gurutze berdearen transparentziaren atzean ezkututzen den jendeak? Ez al da existitu han Osasunbidearekin bizitza osorako hitzarmenak? Herritarrek edonon erosteko esku-bidearekin akordatzen al zara inoiz? Liberalizazioaren ondorioz portua sekulan aurkituko al dute botikarien ontziek? Farmazialariak patua aipatzen dutenean zertaz ari dira, lan seguru baten abantailaz? Otoi egiterakoan gogoan izaten al dituzte lizentziatu berrien karabana? Ba al dago Bayer konpainiako laborategirik paraje horietan. Ez al duzu frenadolarekin amesgaiztorik izan? Ba al dira kondoiak sekulan saltzen ez dituzten batzuridunak? Egunero errezetarekin kaletik ikusten ditudan gaixo hauek han bizi al dira? Asko al zarete Erresuma zaharrean lege proiektu honen aldekoak? Cenizas bezala firmatzen duen espiaren laguntzaz herritarrek tabakoarekin asfixiatzen dituzten estankoak izanen al dira zure hurrengo biktimak? Esaidazu, Santiago, zoriontsua al da lege proiektuaren mugaz bestaldeko osasun kontseilaria. Ez da posible, ezin liteke.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Iruñeko peñek antolatuta, Su ta Gar, Flitter, Celtas Cortos eta Dank taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, zezenplazan, 20:30ean.
- **Bera:** Bihar, 20:00etan, Iruñeko Oberena abesbatzaren kantaldia izanen da kultur etxean.
- **Otsagi:** Erramun Martikorena erabilera aintzeko gelan izanen da bihar 20:30ean.
- **Tutera:** Barricada eta Buitraker taldeek bihar, 22:00etan, Elola kiroldegian joko dute, poligonoaren aukako batzordeak antolatuta.

BERTSOLARIAK

- **Gartzarun:** Bihar, 22:00etan, bertso afaria izanen da elkarrean. Jon Maia eta Jokin Sorozabal bertsolarien eskutik.

HITZALDIAK

- **Zizur Nagusia:** Asteartean, Jose Maria Satrustegik *El folklore de San Juan* hitzaldia emanen du, 17:00etan, eskoletako eraikin gorrian

ERAKUSKETAK

- **Burlata:** Hila bukatu arte Koro Cantrabanaren argazki erakusketa dago ikusgai kultura aretoan, asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Mutiloagoiti:** Hilaren 31 arte ikus daiteke *Non dago zure laranja erdia* erakusketa Aranguren ibarreko kultur etxean, lanegunetan 18:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

BESTAK

- **Biurrun:** Gaur eta bihar Gazte Jaiak ospatuko dituzte. Gaur-

ko gaupasa Iron eta Maiden taldeak alaituko du, eta biharkoa. Trikimailu taldeak. Bihar, 19:00etan, herriko dantza taldeak emanaldia eskainiko du.

► **Etxarri-Aranatz:** Igandean Haurren Eguna ospatuko dute erraldoi, buruhandi, jolasparke, txistulari, trikitilari, antzerki, dantzaldi eta zezen suzkoarekin.

► **Eunate:** Etzi, igandearrekin, Izarbeibarko Euskararen Eguna ospatuko dute Eunateko eliza

ondoan. 11:30ean, meza emanen dute, euskaraz, 12:00etatik aurrera, herri kirolak, trikitilariak, txistulariak, gaitariak eta txalapartariak izanen dira. Herri bazkariaren ostean, 16:00etan, T'Ombligo taldeak *Caninando* lana antzeztuko du, euskaraz.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Gaur Chiapasko komunitateen aldeko jaialdia egingen dute Iruñeko Gazte-

txean. 21:30etan afaria izanen da, eta bi ordu geroago Servicio Secreto (Mexiko) eta Ama Syon Sound System (Iruñea) taldeek kontzertua eskainiko dute.

► **Iruñea:** Karrikirik ikasle euskaldunen pisuak osatzeko zerbitzua abiatu du. Hortaz, euskalduna bazara eta pisu bila bazabiltza edota zure pisuan euskaldunendako lekua baduzu zoaz Karrikirira (Xabier karrika, 2 bis) edo hots egiezu (948-222589).

INAKI VERGARA



Harria, bandera eta liliak

Hiru osagai bertzerik ez da behar euren bizia Errepublikaren alde eman zutenei omenaldia egiteko. 1938ko maiatzaren 22an 795 bat presok ihes egin zuten Ezkaba mendian dagoen Alfonso XII gotorlekutik. Kartzela zen orduan, hilerria. 585 lagun itzuli zituzten barnera. 187 hilobiratu zituzten. Eragiketak 23 salbatu zirela argitzen du. Askatasuna, ordea, 795ek erdie-tsi zuten. «Dolu gabe hiltzen naiz, bizia askatasunaren alde ematen baitut» dio hildakoen harriak.